



Esp. kodea: 2016PHES0002

Gaia: Udalaren Enplegua Sustatzeko Programa
2016

Hasiera eguna: 2016/09/16

ERANSKINA

UDALAREN 2016KO ENPLEGU SUSTAPEN PROGRAMA Langabezian dauden 5 pertsona, aldi baterako, kontratatzeko deialdia

HAUTAKETA PROZESUEN JARRAIPIDEAK

✓ **Programaren xedea**

Arrasateko Udalak, Enplegua zuzenean sustatzeko programaren baitan **5 lan-kontratu** egingo ditu, aldi baterakoak, **udalerrian bizi diren langabeentzat**, ondoren azaltzen den prozesuaren arabera:

✓ **Kontratatuko diren lanpostuak**

Hemen aipatzen ditugun **lanpostuak** betetzeko dira kontratu horiek:

LANPOSTUAK	PROIEKTUA	JARD.	IRAUP.
Dokumentalista / Digitalizazio teknikaria	Industria bilduma inbentariatzea eta ordenatzea. Jose Letonaren artxiboa digitalizatzea.	% 100	6 hil.
Ingeniari Tekniko Elektrikoa	Telegestio eta monitorizaziorako programen jarraipena.	% 100	6 hil.
AOT / Zuzenbidean lizentziatua	Udal ondasunen gaineko azterketa eta inbentarioaren eguneraketa.	% 100	6 hil.
Gizarte hezitzailea	Arrasateko gazte lokalen inguruko azterketa	% 100	6 hil.
Kirol aholkularia	Gimnasioaren erabilera kudeatzea	% 50	12 hil.

✓ **Kontratatzeko baldintza orokorrak**

Izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaile moduan izena emanda dauden pertsona langabea izatea.
- Deialdia egin eta sei hilabete lehenagoz Arrasaten erroldaturik egon beharko dira.

✓ **Lanpostu bakoitzerako baldintza espezifikoak**

Kontratu bakoitzak, lanpostuaren ezaugarrien arabera, titulazio, euskara jakitea, eta abar moduko baldintza jakin batzuk ditu ezarrita; eranskinean jasotakoaren arabera.



Esp. kodea: 2016PHES0002

Gaia: Udalaren Enplegua Sustatzeko Programa
2016

Hasiera eguna: 2016/09/16

✓ **Eskabideak (LANBIDEtik) egiteko modua eta epea**

Hautaketa prozesuetan parte hartzeko interesa duten pertsonak izena eman behar dute LANBIDEn (bulego kolaboratzaileetan edo web orrian), LANBIDEn web orrian, udal webgunean eta gainontzeko euskarri informatiboetan iragarriko diren epeetan.

Aukera egiten duen lanpostu bakoitzeko inskripzio edo izen emate bat egin beharra dago.

✓ **Izangaien aurretiko aukeraketa**

LANBIDEk egingo du izangaien aurretiko aukeraketa ezarritako baldintzen arabera.

✓ **Izangaien azken aukeraketa**

Izangaien azken aukeraketa Udalak egingo du, egokitasun probak eginez eta izangaiek egiaztatutako merituak baloratu, eranskinean jasotakoaren arabera.

✓ **Epaimahaia.**

Hautaketa prozesuko kalifikazio epaimahaia honela eratuko da:

- **Epaimahaiburua:**
 - Pertsonal burua (titularra) edo udal teknikari bat (ordezkoa).
- **Epaimahaikideak:**
 - Postuari dagokion arloko burua.
 - Postuari dagokion arloko karrerako funtzionario bat.
 - Udal funtzionario bat, ordezkari bat, sindikalak proposatuta.
- **Idazkaria:**
 - Pertsonal saileko administrari bat.

✓ **Informazioa eta kontsultak**

Deialdi honi buruz Udalak hartzen dituen erabakiak (oharrak, aurrez aukeratutako izangaien zerrenda, azterketak edo elkarrizketak egiteko deialdiak, hautaketa proben emaitzak, eta abar) udaleko web orrian argitaratuko ditu (www.arrasate.eus) eta interesdunen eskura jarriko ditu BAZen, Biztanleentzako Arreta Zerbitzuan.

Deialdi honi buruz interesdunek behar duten edozein informazio osagarri jasotzeko, hona jo dezakete:

- **BAZ (Biztanleentzako Arreta Zerbitzua)**

Arano eta Gartzia maisu-maistra 8

Tel.: 943 252000; Arrasate 010

baz@arrasate.eus



Esp. kodea: 2016PHES0002

Gaia: Udalaren Enplegua Sustatzeko Programa
2016

Hasiera eguna: 2016/09/16

✓ Bete beharreko baldintza bereziak eta egin beharreko probak:

➤ **DOKUMENTALISTA / DIGITALIZAZIO TEKNIKARIA**

- **Baldintza bereziak:**
 - Erdi mailako unibertsitateko titulua, lizentziatura edo gradua.
 - Hauetako ikasketa edo eskarmentua izatea:
 - Dokumentalista moduan edo/eta museogintza arloan formazio espezifikoa, edo lan eskarmentua.
 - Artxiboetan edo Liburutegietako lanetan eskarmentua.
 - 3 HE egiaztatzea.
 - B gida baimena.
- **Merituak:**
 - Euskara 4 HE: 10 puntu.
 - Kontratu gabea izatea, aurreko 3 urtetan, enplegu sustapen programetan: 15 puntu.
 - Emakumea izatea: 5 puntu.
 - Legezko ezintasun izaera edukitzea, ehuneko 33koa edo hortik gorako elbarritasun maila batekin, eta bateragarria izatea dagozkion zeregin eta egitekoak betetzearekin: 5 puntu.
- **Probak:**
 - *Praktikoa:* 0-40 puntura baloratuko da eta gutxienez 20 atera behar da aurrera egiteko.
 - *Elkarriketa:* 0tik 10 puntu arteko balorazioa izango du, eta gutxienez 5 puntu lortu behar dira.

➤ **INGENIARI TEKNIKO ELEKTRIKOA**

- **Baldintza bereziak:**
 - Ingeniari Tekniko elektrikoa edo baliokidea.
 - B gida baimena.
 - 3 HE egiaztatzea.
- **Merituak:**
 - Euskara 4 HE: 10 puntu
 - Kontratu gabea izatea, aurreko 3 urtetan, enplegu sustapen programetan: 15 puntu.
 - Emakumea izatea: 5 puntu.
 - Legezko ezintasun izaera edukitzea, ehuneko 33koa edo hortik gorako elbarritasun maila batekin, eta bateragarria izatea dagozkion zeregin eta egitekoak betetzearekin: 5 puntu.
- **Probak:**
 - *Praktikoa:* 0-40 puntura baloratuko da eta gutxienez 20 atera behar da aurrera egiteko.
 - *Elkarriketa:* 0tik 10 puntu arteko balorazioa izango du, eta gutxienez 5 puntu lortu behar dira.



Esp. kodea: 2016PHES0002

Gaia: Udalaren Enplegua Sustatzeko Programa
2016

Hasiera eguna: 2016/09/16

➤ **AOT / ZUZENBIDEAN LIZENTZIATUA**

- **Baldintza bereziak:**
 - Zuzenbidean lizentziatua edo gradua.
 - 3 HE egiaztatzea.
- **Merituak:**
 - Administrazioan edo eta arlo pribatuan, baina administrazio zuzenbidearen arloan, lan eskarmentua: 20 puntu.
 - Euskara 4 HE: 10 puntu
 - Kontratu gabea izatea, aurreko 3 urtetan, enplegu sustapen programetan: 15 puntu.
 - Emakumea izatea: 5 puntu.
 - Legezko ezintasun izaera edukitzea, ehuneko 33koa edo hortik gorako elbarritasun maila batekin, eta bateragarria izatea dagozkion zeregin eta egitekoak betetzearekin: 5 puntu.
- **Probak:**
 - *Praktikoa:* 0-25 puntura baloratuko da eta gutxienez 12,5 atara behar da aurrera egiteko.
 - *Elkarriketa:* Orik 25 puntu arteko balorazioa izango du, eta gutxienez 12,5 puntu lortu behar dira.

➤ **GIZARTE HEZITZAILEA**

- **Baldintza bereziak:**
 - Titulua: lizentziatura edo gradua Gizarte Hezkuntzan, Gizarte Langintzan, Magisteritzan, Pedagogian, Psikologian edo Psikopedagogian.
 - 3 HE egiaztatzea.
- **Merituak:**
 - Euskara 4 HE: 10 puntu.
 - Kontratu gabea izatea, aurreko 3 urtetan, enplegu sustapen programetan: 15 puntu.
 - Emakumea izatea: 5 puntu.
 - Legezko ezintasun izaera edukitzea, ehuneko 33koa edo hortik gorako elbarritasun maila batekin, eta bateragarria izatea dagozkion zeregin eta egitekoak betetzearekin: 5 puntu.
- **Probak:**
 - *Praktikoa:* 0-25 puntura baloratuko da eta gutxienez 12,5 atara behar da aurrera egiteko.
 - *Elkarriketa:* Orik 25 puntu arteko balorazioa izango du, eta gutxienez 12,5 puntu lortu behar dira.



Esp. kodea: 2016PHES0002

Gaia: Udalaren Enplegua Sustatzeko Programa
2016

Hasiera eguna: 2016/09/16

➤ **KIROL AHOLKULARIA**

- **Baldintza bereziak:**
 - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan Lizentziatua edo graduatua.
 - 3 HE egiaztatzea.
- **Merituak:**
 - Euskara 4 HE: 10 puntu.
 - Kontratatu gabea izatea, aurreko 3 urtetan, enplegu sustapen programetan: 15 puntu.
 - Emakumea izatea: 5 puntu.
 - Legezko ezintasun izaera edukitzea, ehuneko 33koa edo hortik gorako elbarritasun maila batekin, eta bateragarria izatea dagozkion zeregin eta egitekoak betetzearekin: 5 puntu.
- **Probak:**
 - *Praktikoa:* 0-25 puntura baloratuko da eta gutxienez 12,5 atera behar da aurrera egiteko.
 - *Elkarrizketa:* 0tik 25 puntu arteko balorazioa izango du, eta gutxienez 12,5 puntu lortu behar dira.